


Euskal AEko txikizkako merkataritzako salmentak % 4,2 gehitu dira 2024ko hirugarren hiruhilekoan

Aurreko hiruhilekoaren aldean, salmentak % 1,7 gehitu dira

Eustaten datuen arabera, Euskal AEko txikizkako merkataritzaren sektorean, 2024ko hirugarren hiruhilekoan, salmentak % 4,2 igo dira, aurreko urteko hiruhileko beraren aldean, egutegiaren eraginak kenduta eta prezio konstanteetan. Salmentak, urte artean, % 4,8 igo dira, gasolindegia kontuan hartu gabe.

Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, dagozkion urtaro-ondorioak kenduta, salmenta-indizea % 1,7 igo da 2024ko hirugarren hiruhilekoan.

Euskal AEko txikizkako merkataritzaren indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa (%)



Iturria: Eustat. Txikizkako merkataritzaren indizea (BMIT)

2023ko hirugarren hiruhilekoaren aldean, *Elikaduraren* salmentak % 3,0 gehitu dira prezio finkoetan. *Gainerako produktuen* sektorean, salmenten urte arteko igoera % 6,9koa izan da 2024ko hirugarren hiruhilekoan. *Automobilgintzarako erregaiaren* sektorean, aldiz, salmentak aurreko urteko hiruhileko berean baino % 1,8 txikiagoak izan dira.

2024ko bigarren hiruhilekoaren aldean, urtaroen eraginak kenduta eta prezio finkoetan, *Elikaduraren* sektoreko salmentak % 0,2 jaitsi dira. *Gainerako produktuetan* eta *Automobilgintzarako erregaian*, aldiz, salmentak % 4,2 eta % 1,5 igo dira hiruhileko artean, hurrenez hurren.

Euskal AEko Txikizkako Merkataritzaren Indizea. Urte arteko eta hilabete arteko aldakuntza-tasak (p). 2024/III

	Prezio finkoak		
	t / t-4	t / t-1	At / At-4
INDIZE OROKORRA lurralde historikoaren arabera			
Euskal AE	4,2	1,7	2,2
Araba/Álava	2,9	1,3	1,5
Bizkaia	4,2	2,0	2,0
Gipuzkoa	4,7	1,3	2,8
INDIZE OROKORRA sektorearen arabera			
Janariak	3,0	-0,2	3,5
Elikagaien saltoki espezializatuak	2,8	-1,2	2,7
Elikagaiak nagusi diren establezimendu ez-espezializatuak	3,0	0,9	3,7
Gainerako produktuak	6,9	4,2	1,7
Pertsonaren ekipamenduan espezializatutako establezimenduak	8,4	2,1	3,4
Etxearen ekipamenduan espezializatutako establezimenduak	6,2	1,8	-1,2
Kontsumoko beste ondasunetan espezializatutako establezimenduak	5,6	2,1	-0,4
Gainerako produktuak nagusi diren establezimendu ez-espezializatuak	4,7	1,2	4,7
Automoziorako erregaiak	-1,8	1,5	-2,4
INDIZE OROKORRA gasolindegirik gabe	4,8	1,8	2,7
LANGILERIA-INDIZEA			
Euskal AE	1,7	0,8	1,5

(p)Behinbehineko datuak

t / t-4 Urtearen arteko aldakuntza. Egutegi eraginak zuzendutako datuak

t / t-1 Hiruhileko arteko aldakuntza. Datu desestacionalizatuak

At/At-4 Lehen hiruhilekotik behatutako azkenekora arte metatutako aldiko urte arteko tasa (At) aurreko urtean metatutako aldi beraren aldean

Data 2024ko Azaroaren 8a

Iturria: Eustat. Txikizkako Merkataritzaren Indizea (BMI)

Elikaduraren txikizkako merkataritzaren barruan, *Elikaduran*, *edarietan* eta *tabakoan espezializatutako* merkataritzaren salmentak (fruta-dendak, harategiak, arrandegiak, etab.) % 2,8 gehitu dira 2023ko hirugarren hiruhilekoaren aldean. *Espezializatu gabeko* eta *elikagaiak*, *edariak* eta *tabakoa nagusi dituen* txikizkako merkataritza (batez ere supermerkatuak eta hipermerkatuak), bestalde, % 3,0 gehitu dira salmentak urte arteko terminoetan.

Gainerako produktuen txikizkako merkataritzaren barruan, *Pertsonen ekipamenduan espezializatutako sektorean* (arropa, oinetakoak, kosmetika- edo higiene-produktuak) salmentak % 8,4 gehitu dira urte artean, eta *Etxeko ekipamenduan espezializatutako sektorean* (etxetresna elektrikoak, altzariak eta telekomunikazio-ekipoak barne) % 6,2.

Bestelako kontsumo-ondasunetan espezializatutako sektorean (besteak beste, kirol-artikuluak, jokoak edo jostailuak), salmentak % 5,6 gehitu dira aurreko urteko hirugarren hiruhilekoaren aldean. *Gainerako produktuetan nagusi den sektore ez-espezializatuan* (korrespondentzia edo Internet), azkenik, salmentak % 4,7 gehitu dira.

Lurralde historikoen arabera, 2024ko hirugarren hiruhilekoko salmenta-indizeak urte arteko hazkundera izan du lurralde historiko guztietan. Araban indizea % 2,9 igo da, Bizkaian % 4,2 eta Gipuzkoan % 4,7.

Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, salmenten bilakaera ere positiboa izan da hiru lurralde historikoetan. Araban eta Gipuzkoan, 2024ko bigarren hiruhilekoaren aldean, salmenten igoera % 1,3koa izan da; Bizkaian, berriz, % 2,0koa.

2024ko hirugarren hiruhilekoan, Euskal AE osoan, txikizkako merkataritzaren sektorean landunen kopurua % 1,7 gehitu da aurreko urteko hirugarren hiruhilekoaren aldean. 2024ko bigarren hiruhilekoaren aldean, enplegua % 0,8 gehitu da.

INFORMAZIO-OHARRA

Urte arteko aldakuntzak egutegiaren eraginak zuzendutako serieetan oinarrituta kalkulatu dira, eta hil arteko aldakuntzak urtarokotasunik gabeko serieetan oinarrituta.

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie informazioa biltzen lagundu duten establezimendu guztiei. Horiei esker, hiruhileko honetako indizea laginaren % **96,47ko estaldurarekin** kalkulatu da.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62